

Donostia, 2016ko martxoaren 17a

IDAZKARI NAGUSIARI

KONTROL MOZIOA, DONOSTIAN ELIZAK EGINDAKO IMMATRIKULAZIOAK DIRELA ETA

Irabazi Donostia taldeko zinegotzi Loïc Alejandrok, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 98. artikulua oinarri, ondorengo KONTROL MOZIOA egiten du, Eliza Katolikoak immatrikulatutako jabetzak direla eta, Hirigintza Sostengagarriko, Etxebizitzako eta Hiri Proiektuetako zinegotzi ordezkari Enrique Ramos Vispori Lurraldearen Garapen eta Planifikazio Batzordean 2016ko martxoaren 14an egindako interpelazioen ondorioz.

JUSTIFIKAZIOA

Joan den azaroan, immatrikulazioei buruzko 206. artikulua polemikoa galdu zuen Hipoteka Legeak, hala, 1946an, Francoren diktadura bete-betean, Estatuak azken urteotan abiarazitako desamortizazioen konpentsazio historiko moduan indarrean ezarritako immatrikulazio polemiko horiek amaitu zirelarik. Halere, Eliza “katoliko, apostoliko eta erromatarra” delakoak, jabetza ohar askotan hala jasotzen baitu, *vacatio legis* delakoa aprobetxatu zuen bere prerrogatiba azken unea arte erabiltzeko, Parlamentuan legea onartu eta indarrean sartu bitartean.

Elizak egindako immatrikulazioei buruzko argibideak eskatzea erabaki zuen Eusko Legebiltzarrak ekaineko osoko bilkuran. Sei hilabeteko epea ezarri zuten baina materiala duela aste gutxi heldu da. Ez dago Gobernuaren txostenik, hainbat formatutako jabetza ohar arrunten zerrenda huts baizik.

Guztira, 1978tik 2015eko uda arte, Eliza katolikoak 530 jabetza eskuratu zituen Euskadiko Autonomia Erkidegoan, eta Gipuzkoa izan da Elizak jabetza erregistroko leihatilara aldi gehiagotan jo duen probintzia. 387 alditan ere, gehienak Jose Maria Setien Donostiako gotzaina zen garaian.

1946ko formula juridiko horrek hainbat abusu eragin ditu, immatrikulatutako jabetza guztiei erreparatuz gero. Praktikan Elizak jabetzak eskuratu ditu jarudneko gotzainaren baimen hutsari esker, administrazio publikoa balitz bezala. Ahalmen hori indargabetzea erabaki zuten 2015ean Gorte Nagusiek, nahiz eta Hipoteka Legearen erreformak PSOEek eta IUk ordezkaturiko ezkerren gaitzespena izan zuen. Etorkizunean immatrikulazioak kentzea aldeztu zuten, bai eta azken urteotan immatrikulaturiko ondasunena konpontzea ere.

Hirigintzako zinegotzi ordezkari Ramos jaunak 14ko batzordean adierazi zuenaren arabera, parlamentuko talde sozialistari zerrendaren kopia bat eskatua dio, baina ez dirudi lortzerik izan duenik.



Prentsari helarazitako datuen garrantzia hala, eta asmoa izanik Eliza katolikoak Donostian ondasunik immatrikulatu duen jakin eta administrazio edo lege ekintzarik egin ote daitekeen aztertzea, gure ustez beharrezkoa da Udalak Jaurlaritzari formalki datuen kopia bat eskatzea.

Horregatik aurkezten dugu ondorengo

KONTROL MOZIOA

1. Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio udal Gobernuari Eusko Jaurlaritzari Elizak immatrikulaturiko ondasunen zerrenda formalki erreklamatu, eta, lortu ondoren, Udaleko talde politikoei bidaltzea.

Sinatua: Loïc Alejandro,
Irabazi Donostia taldeko zinegotzia.